

Galdua pena

Imanol Azkue Ibarbia

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa
1995



Zumaiaiko Udala

*emskar
txanpan*



Galdua pena

Imanol Azkue Ibarbia

Julene Azpeitia 8. ipuin lehiaketa

1995

Zumaiako onenaren saria

Zumaiian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Imanol Azkue Ibarbia (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

Gertaera hark Malkorbe herria goi eta behe astindu zuen. Aspaldian ohantze izan zuen lozorrotik esnatu eta bi astetan zehar begiak irrikan zabaltzen joan zen igande hartara so egiteko. Malkorbetarrek egunerokoari lotuta jarraitu zuten, baina ohizkoaz gain ez zen beste konturik entzuten, apustua baino. "Baietz Txatuak irabazi, ze sasoi betean zegok eta osasun aldetik ez zebilek hain ondo Kepe"; "Kia, Txatuak ez dik sekula arraunean ondo egin eta bi astetan ez zian ikasiko".

Herralde mailan ateratzen zen egunkariak ere asteartean gertakariari orrialde erdia eskaini zion, eta horrela apustuaren berria inguruko herrietara zabaldu zen. "Singular apuesta en Malkorbe" jartzen zuen izenburuan eta alde banatan bi apustularien argazkiak zekartzan. Guapo ikusten zen Txatua, aurpegi erdian sudurtaloa edukiagatik, ile beltza bustita eta atzerantz orraztuta zuela, kamiseta tiranteduna eta arrauna eskuetan; Kepek berriz berez den baino zaharragoa zirudien, agian betaurrekoak jantzita zituelako eta kristal lodien atzean begiak ez zitzaizkiolako ia ikusi ere egiten; baina ilea galtzen ere hasia zen eta edade berekoak izan arren, Txatua baino hamar bat urte zaharragoa zirudien. Ez zuen aparteko gauzarik jartzen berria ematerakoan; bi apustulariek irabazletzat jotzen zuten euren burua, aise gainera, eta kazetariak inguruetan kontu hark sortu zuen ikusmina nabarmentzen zuen, aspaldian ez zela horrelako norgehiagokarik gertatu-eta. Baina data jartzerakoan erratu egin zen gizona eta igandea jarri beharrean larunbata seinalatu; hurrengo egunean albistea zuzentzen bazen ere, izan zen apustu egun bezperan eguerdiko trenean Malkorbera iritsi zenik, Sagaseta baserria non zen galdezka.

Itsas bazterrean sortutako herria zen Malkorbe, baina beti barrurantz hedatu zituen bere nahiak eta zabaldu begiak, itsasoari bizkarra emanez, ibai bokalea maiz ixten zuen ur eremu biziarekin haserre egon izan balitz bezala. Jende gehienak ugaltzen ari ziren lantegietan lan egiten zuen eta hasiak ziren baserritarrak kalera jaisten, herrian sortutako industriak eta eskulanaren premiak deituta. Hala ere, bazen jendea arrantza zuena bizibide, gero eta ugariago gainera, kanpotik ekarritako arrainarekin lan egiten zuen kontserba lantegi hura zabaldu zenetik ere pare bat urte iraganak baitziren. Baina arrantzontzi handiak baino gehiago txalupa txikiak zeuden, txipironera deiturikoak, motor txiker baten bidez edo arraunez mugitzen zirenak.

Lehen, urte batzuk atzera ohizkoa bazen ere, gero eta arraroago gertatzen zen ibaian edo itsasoan norbait arraunean ikustea, eskuarki plo-plo-plo motorra martxan zutela abiatzen baitziren motora gehienak. Baina aurrerakuntzak ez ziren iritsi guztietara eta batzuetan ikus zitekeen jendea arraunei eragiten, eta patuak edo txiripak hartan elkartu zituen Txatua eta Kepe uztailleko egun batean, kaitik irten eta ibaian gora egiteko dagoen bihurgunean, bata bestearen alboan arraunean.

Elkarri begiratu, eskua altxa diosala egiteko eta arraunean jarraitu zuten. Kanean bata bestearen alboan joan izan balira berdina egingo zuketean: agurtu eta elkarrengandik urruntzen saiatu, bakoitzak bere eremuari eutsi eta bestearrengandik aldentu; edo elizara mezatara joan eta aulki berean esertzea suertatuz gero ez ziratekeen ondo-ondoan, izterrez izter eseriko, tartea utziko zuketean. Horregatik, eta horretaz ia konturatu ere egin gabe, Txatuak arraunak gogor inarrosi eta aurrerantz jo zuen, nola edo hala Kepe atzean utzi eta lasaiago egon nahirik; baina eginahalak eginagatik ez zuen lortzen Keperen brankari bere txopa erakustea. Honi ere gauza bere bururatu baitzitzaion, bestea atzean uztea alegia.

Hasieran nahi gabe egin zutena, senak agindutakoa bete, gerora inoiz aditzera eman gabeko norgehiagoka bilakatu zen, irteerarik eman gabeko lehiaketa. Aldarrikatu gabeko gerla. Lehen paladetan elkarri zeharka begiratzen zioten, burua jiratu gabe, begiak okerka betazaletatik irten beharrean, besteak egiten zuenaz konturatu ez balira bezala. Gerora ordea, hasierako txanpa parekoa izan zela ohartzean eta aurrerapenik gabe besoak bero-bero jartzen ari zirela ikusirik, Txatuak begirasun iluna bota eta arrasto zuzena utziz ezkerraldera hartu zuen, padurarantz, estuasunak utzi eta gozaro arraun eginez. Kepe berehalakoan ohartu zen besteak egindakoaz, kirikan baitzihonan, eta ezer gertatu ez balitz bezala bere bideari jarraitu zion ibaian gora, irribarre txikia zuela ezpainenetan.

Ezin esan lagun-minak zirenik, baina inork ez zuen emango gaizki konpontzearen arrazoirik, bien arteko tratua normala baitzen. Agian Padre Moises han egon izan balitz oroituko zatekeen abuztuko inular hartan gertatutakoaz, artean Txatuak eta Kepek euren izenari eutsi eta Inozentzio eta Zeferino zirenean, mutil koskor mukitsu batzuk besterik ez. Baina barne birmoldaketa bat zela-eta aspaldi alde eginak ziren Lasalletarrak Malkorbetik, errosariodun askoren atsekabe eta itzulminerako. Garai hartan gaztetxoek artean kale jolasak ziren nagusi eta entretenimendua izaten zen zeregin ezean inguruko baratzetan sartu eta lapurreta txikiak egitea. Ez goseagatik, gerraosteko urteak baziren ere ez baitzen izan Malkorben janari faltarik; edade horretan umeak behar izaten du nor ernegatu eta tentatu, nola edo hala arriskua bizkar gainean sentitu. Gaur hemen sagarrak, bihar han mahatsa, inguruetakoko baratza jabeek ongi zainduak zituzten gaztetxoek joan etorriak eta hauek ere hobeki neurtuak fruitu arbolak, batez ere pisuaz beherantz egiten zutenean. Lasalletarren ikastetxe atzean bazen baratza ederra eta aspaldian begiz joak zituzten mutikoen dilin-dalan kulunkatzen ziren txermen urtsuak. Ordea, inor ez zen ausartzen sartzera, klaseak amaitu eta oporretan bazeuden ere errespetu edo beldur handia baitzieten fraile haiei eta are gehiago Jainkoaren errukirik gabe astintzen zuten makilari. Besteen aurrean zerbait bazirela erakutsi nahian Inozentzio eta Zeferino arriskatu ziren sartzera, eguzkia ostendu eta itzalak hastean oharkabean pasako zirelakoan. Hartan ari zirela, Zeferino zainketa lanetan eta Inozentzio udareondo goian, iluntasunean azaldu

zitzaien ilargia baino isilago Padre Moises eta Zeferinok nahikoa lan izan zuen korrikaldi batez ospa egiteko. Fraideak ez zuen ezagutu ihesi zihoan itzala eta hasieran arbola gainean zegoena ere ez. Jaisteko agintzen zion, ez ziola ezer egingo, zenbat eta gehiago egon goian okerrago izango zela, baina Inozentziok beldur zion zigorrari. Behin eta berriz fraideak ezer ez ziola egingo hitz eman zion eztiki eta azkenik, behera egin zuen. Lepotik heldu bezain pronto ederki kendu zizkion euliak Padre Moisesek. Hanka egin zuen laguna nor zen ere galdetu zion, baina ez zuen txintik ere atera eta ezpainak lotuta izan zituen. Ezer gertatu ez balitz bezala elkartu ziren hurrengo egunean lagunartean, eta ez zuten gertatutakoa aitatu ere egin. Bati lotsa ematen baitzion jasotako orraztaldea aitortu beharra eta besteari berriz laguna bakarrik utzi izana barnebarnean korapilatu baitzitzaion. Denborak itxuraz estali egin zuen gertaera hura.

Nola edo hala iritsi zitzaion belarrira Txatuari moilan zehar eta herriko tabernetan alde batetik bestera hedatu zena, jendearen ahotan zebilena: indarrak asko mermatuta zeuzkala eta lehengoan Kepek arraunketan irabazi egin ziola. Aste bat edo iragana zen adierazi gabeko norgehiagoka hura izan zenetik eta ia ahaztuta zeukan. Dudarik gabe, zurrumurrua Kepe berak zabaldua zuen, ez baitzuen uste beste inork ikusi zituenik arraunketa hartan. Bere onetik atera zuen entzundakoak eta sumindu egin zuen. Arratsalde guztia bestea noiz harrapatuko ibili zen eta azkenean tabernan aurkitu zuen, koadrilarekin batera, eta beregana gerturatu eta gorde antzean txoko batera eraman zuen. Ahots meharrez hasi zitzaion hizketan, inork ez entzuteko moduan, ezpainak belarritik gertu.

—Hi, ze habilek zabaltzen hortik?

—Zabaldu? Zertaz ari haiz?

—Arraunean hire kontra apustua galdu diateneko berria. Honez gero herri guztiak jakingo dik gezurra besterik ez dena. Ze, gu bakarrik gintuan han, lehengoan, eta nik ez badiat ezer esan hi izan behar. Zertan habilek?

Keperen aurpegia gorritik zurira pasa zen eta zurbildurak are nabarmenago adierazten zuen bere aitormena. Burua makurtu, erabilpen ezagatik aurkitzeko hain zailak ziren hitzik xamurrenak aukeratu eta bere burua zuritu nahian hasi zen, ia totelka, "Badakik... lagunartean askotan zer hitz egina falta izaten diagu eta... hemen, huskeria bat bezala aitatu nian, baina nik ez nian esan apustua egin genianik, nik ez nian... ". Zuribideak ordea, eta batez ere Kepek erabiltzen zuen tonu umil eta otzanak lagunaren begiradak eta arreta bikotearengana eraman zituzten, eta laster batean izkina batean zirenak zirkulu baten barruan ikusi zituzten euren buruak. Eta ez zegoen kokiltzerik, atzerabiderik; luma guztiak ondo astindu, oilartu, gandorra gora altxa eta oilategiaren aurrean kikirikia jo beharra zegoen, bestearen ahotsa estaliz ahal izanez gero gainera. Keperen aurpegia berriro zuritik gorrira pasa zen. Eskutan zuen ardoa kolore argikoa zen bere aurpegiaren aldean.

—Hi, ba has hadi zabaltzen gezurra dela, ez geniala inolako demarik izan.

—Baina norgehiagoka egin genian, hitzartu ez bagenian ere... eta okertu egin hintzen gehiago ezin huenean, bide zuzena utzi eta alde batera egin huen. Ez didak orain ezetz esango ba?

—Nik zer? Gehiago ezin nik? Erretiratu ezak hori azkar, erretiratu ezak gehiago haserretzerik nahi ez baduk....

Hitzen abiadura eta eztabaidaren berotasuna gorantz zihoazen. Ordurako arratsaldeko 8ak jota ziren eta ez zeuden baraurik. Bakoitzak bere lagunak atzean sumatzen zituen eta horrek indarrak ematen zizkien ez makurtu eta bestea mendean hartu nahi izateko. Hitz eta keinu bakoitza bestea azpiratzeko saiakera bihurtu zen. Elkarri erronka egiten hasi ziren, nor handiagoa botako bestea akuilatuz eta ardoaren berotasunak ematen duen sugarrarekin zehaztu zuten apustua, Felix tabernaria lekuko zela: Zubi Handitik irten eta Sagaseta baserrira tartean arraunean neurtuko zituzten indarrak, handik bi astera, igandean. Eta zer jokatu?

—Jartzak hik nahi deken!

Zein baino zein harroago zebilen, eta Txatuak bakoitzaren txalupa jokatzea proposatu zuen. Zeukan ondasunik onena zen.

—Txalupa? Txalupa ez, motel, hori gutxi dek!— Ordurako ia gainezka egina zuen putzontzia, gehiago ezin kabiturik— Joka dezagun zerbait... inportanteagoa...

—Ondo ba. Eta zer jokatuko diagu ba?

Felixek notario lanak egin, paper batean dena apuntatu eta sinarazi zien biei, "Bestela biharko damutuko zaizue eta ahaztu nahi izango duzue". Papera barra atzean gordetzen zuen egurrezko kutxatilan ezkutatu zuen, giltza eta gauza garrantzitsuekin batera. Oraindik ere xehetasun batzuk lotu gabe geratu ziren eta horretarako beste bilera baterako zita ezarri zuten hurrengo astearterako, handik bost egunera. Denbora horretan koadrila bakoitzak izango zuen nahikoa asti apustuaren gorabeherak ondo aztertzeke eta ahal zuen neurrian tratua bere aldera eramateko.

Txatua eta bere lagunak arrapaladan eta trumilka irten zuten tabernatik, builaka eta elkarri hitza janez. Olatuak gogor astindu ondoren, ur gaineko aparra sentitzen ziren, protagonista nolabait. Kepe tabernan geratu eta koadrilarentzat erronda eskatu zuen, ukabila itxiarekin egurrezko barra gainean kolpe bat emanez.

—Atera erronda!

Parean zeukan Felixen besaburu gainetik bere aurpegiari so egin zion, barraren atzean zegoen ispilu zimel eta horixkatuan. Bizkarrean esku-zartada bat sentitu zuen, lagunek animoak ematen zizkieten eta horrek uxatu zuen pixkanaka bere kopetan hedatuz zihoan laino beltza.

Etxe atarira iristean sukaldeko argia piztuta ikusi zuen. Atea zabaltzearekin batera elizako kanpaiek hamarrak zirela jakinarazi zioten. Pasilloan barrena joan eta Inaxi ikusi zuen mahaiburuan eserita, arropa konponketan. Ia gabonik esan gabe, ohi zuenez, zuzenean mahaian eseri zen. Inaxi zutitu eta zapia hartuz bero-bero zegoen lapikoa hurbildu zion. Zuzen begiratzen zion emazteari, baina honen begiek ihes egiten zioten. Baratxuri-zopa atera zion platerera. Kepek betaurrekoak kendu egin zituen, ziurrenik zoparen berotasunez lurrundu egin zitzaizkiolako. Zerbait esan behar eta umeen galde egin zion emazteari.

—Ohean dira. Aspaldi joanak. Jadanik ez dute galdetzen non den aita.

Nabari zen Inaxi haserre zela eta ez zuela berriketarako gogorik. Nazkatuta zegoen, eta ez senarra berandu iristeaz soilik, ekartzen zuen piura ikusteaz ere bai. Errotarria bezain astun eta langile saiatu ere saiatu zen

senarraren azturak nola edo hala aldatzen, bereganatzen edo gutxienik errotarako ubidea erakusten. Baina alferrik: errotarriak ere atsedena behar izaten du eta hala ere ura errekan behera joaten da, erraz bezain alai bere bidetik. Ezkondu eta lehen urteetan ez zuen lortu eta azkar hartu zuen etsiak. Negarraldi ederrak eginak zituen sukaldearen bakardadean eta makina bat aldiz joana zen amaren etxera, gehiago ezin zuela esanez. Baina ardatzak estuki atxikitzen zuen errotara eta astunegia zen inora mugitzeko.

Ondo ezagutzen zuen senarra, ezkondu zirenetik hamabost urte iraganak ziren-eta. Horregatik, gaua iritsi eta gizona etxeratzean erraz igarri zezakeen zer nolako arratsaldea bota zuen kolean, ohituta baitzegoen Keperen aldarteak jotzen zuen txistu doinura dantza egitera. Soinuren bat sumatzen zuenerako nabaritzen zuen eskailerak igotzeko atea ixteko edota giltzak uzteko zuen eran. Umore onean etortzen zenean sarritan izaten ziren algarak eta kantuak, eta Inaxik ere barre egiten zuen orduan, ezkongaitan ezagututako gizona ekartzen baitzion horrek gogora. Gaurkoan, ordea, Kepe isiltasunean sartu zen eta buruko lapikoan esnea minduta egongo zela pentsatu zuen Inaxik.

Etxera bidean, lagunak agurtu eta etxerako aldatsa hartu zuenean, norgehiagokaren kontua andreari erarik goxo eta ulergarrienean nola esan behar zion pentsatzen jardun zuen bere artean, hitzik eta erarik egokienak aurkitu nahian. Kepek ere ondo ezagutzen baitzuen Inaxi, eta bere haserrealdien beldur zen, itsas zakarrari baino ikara gehiago baitzion zapuztutakoan jartzen zuen muturrari. Horretan, bere hitzak luze laburrean neurtzen jardun zuen afaltzen zuen artean ere.

—Gaur apustu bat egin dinat. Txatuarekin.

Inaxik begiak jaso eta atzera josteari ekin zion ezer esan gabe. Bazekien behin errosarioa hasiz gero ez zela letaniak erreztatu gabe geratuko, ezer galdetu gabe dena kontatuko ziola.

—Arraunean. Zubi Handitik Sagaseta arte, nor lehenago iritsi.

Emaztearengan keinuren bat atzeman nahi zuen, esandakoa behar bezala ulertu zuenaren baieztapen bat, aldeko edo aurkako jarrera. Baina andreak berean jarraitu zuen, eta horrek bere onetik atera zuen.

—Ez al didazu ezer esan behar? Mutu jarraitu behar al duzu?

Andreak bere lana alde batera utzi, gorputz erdia jiratu eta senarrari begira jarri zen. Saiatu zen bere hitzen tonua ez aldatzen, bere barnean zuen gaizgiro hura ez gehiegi azaleratzen, baina begien bizitasunak haserrea distiratzten zuten.

—Hara, Zeferino. Aspaldi etsi nuen zurekin. Nazkaturik naukazu, naukazue, zu eta zure lagunek, zuen ahoberokeria eta harrokeriekin. Estropadak direnean, estropadak direlako; aizkolari eta harri-jasotzaileak direnean, urteko apusturik onena delako. Beti izaten duzue nondik ika-mika atera, puztu-puztu egiten zarete eta gero lurra jotzen duzuenean ederki apaltzen zarete. Nik nahikoa lan badut umeak hazi eta ematen dizkidazun sos apurrekin etxea aurrera ateratzen. Zure apustuak ez zaizkit deus inporta, nahi duzuna egin, baina utzi ni bakean.

Hori esanik, aldegitara zihoan andrea, baina bere albotik pasatzean Kepek eskuaz besotik oratu eta bere aurrean eutsi zuen. Zuzen begiratu zion begietara, eta oraingoaz parez pare aurkitu zituen emaztearenak.

—Entzun ezan. Oraingoan ordea apustu berezia dun.

Ordura arte buru barruan egosten ostendurik izan zuenaz erditzen joan zen eta bere hitz bakoitzak Inaxirengan beltzuri eta harridura keinuak sortarazi zituen.

—Aitaren, semearen eta... baina.. baina.. burutik eginda al zaude? Nola egin duzu hori, endemas guri ezer galdetu gabe? Inozentzio, mesedez... Ez da posible... Oraindik garaiz ibiliko zara eta atzera egizu, zaila izango bada ere zuzendu okertutakoa... Jainkoaren izenean.. gugatik edo gure haurrengatik bada ere.

—Ez... egina dago, ez dago itzulbiderik— Andrea bi esku artean eutsi eta bien aurpegiak aurrez aurre geratu ziren. Ardo usainak nazka eman zion eta Inaxik burua jiratu egin zuen. —Ziur nago irabaziko dugula. Ez al duzu konfiantzarik nigan?

Inaxik beherantz indar egin eta gatibu zeukaten senarraren atzaparretatik askatu egin zen, bizkarra eman eta burumakur era motelean pare bat pausu eman zituen. Ahur dardartia pasa zuen bekokitik, artean azaleratu ez zitzaion izerdi hotza kendu nahi izan balu bezala. Haserreak harridura eta ezustekoa estali zituen. Txilbor parean amantal gainetik eskuak elkarren gainean gurutzatu eta honela esan zion senarrari:

—Zuk egina duzu aukera, inori galdetu gabe gainera, eta gu ere hondamenaren atakan jarri gaituzu... Zeferino —zuzen begiratu zion. Birikak arnasez bete ondoren hitz bakoitza sakonagotu eta ondo zizelatu nahi izan zuen. —... zeuk aukeratu. Atzera egiteko asmorik ez baduzu, umeak hartu eta amaren etxera joango naiz. Ez dut zurekin galbidea hartu eta hondamendian amildu nahi.

—Andrea, baina ez da horrela jartzeko... Seguru irabaziko dugula. Beti hitz egin izan dugu etxe zulo hau utzi eta beste bat erosteaz. Hainbeste urte lanean eta ezin izan dugu, eta orain badugu aukera, hemendik aurrera... —Oin gainean jiratu eta besoekin imintzioak egiten hasi zen, ahotsa goratuz. Alde batean zuen sukaldeko horma zuria zinema pantaila bihurtu zen eta bertan bota zituen etorkizunerako zituen burutapen guztien filma.

Baina egitasmoak banan-banan aletu eta bukatu zuenerako bakarrik aurkitu zuen bere burua, ordurako Inaxi joana baitzen korrika txikian. Logelako atea atzean indarrez itxi eta sarraila botatzen sentitu zuen, horrela gertatu berri zen amesgaiztoari bideak itxi nahi izan balizkio bezala. Gizona ez zen mugitu ere egin. Mahai gaineko platerari begira gelditu zen. Une batez non zegoen ere ahaztu, aingura altxa eta itsas korronteak beste norabait eraman zuen. Arestian gertaturikoa aztertzen ari zen, ondorio hartara iristeko gauzak nola tolestu ziren hausnartzen. Etxeko bazter guztiak harrotu zituen hitz enbata eta kirioak astiro lasaitzen joan ziren. Hasperen bat egin eta logelara urreratu zen. Inaxi negarrez sumatu zuen atearen bestaldean. Belarria gehiago gerturatu, eskua jaso eta ia jo zuen egurra hatz koskoekin.. baina bakeak gehiago balio zuela esan zion bere buruari. Armairutik manta bat hartu eta eguerdiko lokuluxka egiteko erabili ohi zuen besaulkian eseri zen. Bizkarra atzearekin alderik alde marruskatu, estalkia gainetik bota eta loak hartu zuen zaratarik gabe, kezkek uxatu nahirik.

Ekilibrista bat zirku bateko pista erdian; zituen onenak jantzita, egurrezko masta handi batean gora igota. Inguruko iluntasuna nabarmenduz foku argi

batek bere gorputz zutitua eta eskuetan zeharka zeukan pertika argitzen zituen. Aurrealdean, berriz, belztasunean galtzen zen zirga bat eta begiak zorurantz zuzendurik. Zirkuko langileak segurtasun sarea lasatzen ari ziren lurra ukitzeraino eta ekilibrista ikaratu egin zen, beldur hotzikara batek zeharkatu zuen goitik behera. Oihu egin zien, baina urrutiegi zeuden, zorurainoko bide plomatuan bere ahotsaren oihartzuna galdu egin zen. Askotan ikusi zituen ekilibrista eta akrobatik lanean, han goian, eta berak ere sarritan entseatu zuen lurraren arrasean zirga gainean aurrera eta atzera. Baina ez zuen ezagutzen mastan gora igotzean gorputzaz jabetzen den zorabioa. Lurrean ziurtzia eta irmotasuna zena goian zalantza eta aldaro bilakatu zen. Ez baitzekien oinak kable gainean ondo eta gogor jarriko zituen, oreka behar bezala mantendu eta beste muturrera iritsiko zen. Takateko bat entzun, beste argi bat piztu eta aurrean zuen burdinaria argitzen joan zen pixkanaka, beste muturra non zegoen ikusi ahal izateraino. Han ordea, bere parean eta atzea emanez, beste ekilibrista bat ikusi ahal izan zuen, bera bezala ikuskizuna emateko prest. Bakoitza erpin batetik irten eta bide erdian elkartuko zirela pentsatu zuen, elkarri traba eginez. Irten eta aurrerantz joan beharra zeukan, bere ikuskaria eman. Eskuetako pertikari sendoro eutsi zion bi eskuekin, baina astun sumatu zuen; begien parera jaso eta arraun bat zen. Izutu eta burdinariaren beste muturrerantz begiratu zuenean beste ekilibrista Txatua zela konturatu zen. Berari begira ari zen; mendekua adierazten zuten bere begi eta irribarreak.

Kepe tupustean iratzarri zen; agondu eta leihotik sartzen zen kale argitasunari so geratu zitzaion, non eta zertan zegoen jabetu artean. Izerditan blai zituen buru eta bularraldea, baina aldatzeko arropa guztiak sarrailapean geratu ziren. Zutitu eta komuneko buelta egitera joan zenean logela parean gelditu egin zen. Argia itzalita zegoen eta ez zen ezer entzuten. Berrito ere eserlekuan luze etzan eta manta gerritik behera bota zuen. Malkoek agian andrearen haserrea eta jarrera irmoa beratu egin zuten, bigundu eta normaltasunera ekarri. Hala desio zuen behintzat. Baina hurrengo egunean eguerdian bazkaltzera etxeratu zenean ez zuen aurkitu zer janik; ez andrerik eta ez haurrik.

Odola berotu eta trabesa zehaztu zuten bezain pronto berria azkar asko hedatu zen herrian, batez ere biharamunean. Goiz partean Goiko Plazan merkatua izaten zen, baserritar eta arrandunak bertan bildu eta etxeakoandreak hara joaten ziren eguneko erosketak egitera. Albistearen malutak merkatuan mara-mara hasi eta eguerdirako notizia abiadan amildutako elur-pila zen, beheko kaian amaitu zenean. Aspaldian ez zen horrelakorik gertatu Malkorben, batzuei harrigarri ere egiten zitzairen halako apustua herrian bertan gertatu izana, eta gehienek hasiera batean mesfidantzaz hartzen zuten albistea, zaila baitzen Txatua eta Kepe elkarren aurka lehian irudikatzea.

Apustuaren olatu bagek gogor jo zuten Malkorbe eta hasieratik bazterrean geratu zen hainbat jende irentsi zuten beraiekin itsas barrenera, deman zuzen-zuzenean esku-hartzera bultzatuz. Hauen artean nabarmenenak koadrilako lagunak ziren, bere kidearekin osoro bat egin baitzuen. Horregatik bakoitza bere apustulariaren ordezkari sentitzen zen eta leku guztietan itsu-itsuan defendatzen zuen.

Zenbait xehetasun behar bezala lotu gabe zeuden oraindik eta horretarako asteartean tabernan lau lagun bildu ziren, alde bakoitzetik bi. Felix eseri zen mahaiburuan eta alde banatan, aurrez aurre, besteak. Bi bikoteen artean zegoen airea ere atezu zegoen, baina akordioetara iritsiko baziren

amore eman beharra zeukaten, zerbaitetan bederen. Tabernariak argi adierazi zien ez zutela nahi zuten guztia lortuko. Azkenik, bilera amaitzean ez zioten elkarri eskurik eman, baina bi aldeak gustura bukatu zuten, apustua erraztu egin zutelakoan.

Kepe eta bere lagunak lana amaitu ondoren moilan biltzen ziren. Pare bat poltsa motora barrura sartu eta ibaian gora joaten ziren, ezkutura, aspaldian begiluzeak asko ugaritu baitziren kai inguruan. Egiten zituzten egonaldietan sekula ez ziren ados jartzen burutu beharreko entrenamenduan, bakoitzak onena berea zela aldarrikatzen baitzuen; batek arraunean asko eta sarri egitea nahikoa zela; besteak korrika ere egitea ez zela kaltegarria izango; beste batek ez zela komeni bi astetan kolpetik kristoren entrenamenduei ekitea, gorputzeko indar guztiak erretzeko arriskua zegoela-eta. Denenak eraman onez entzuten zituen Kepek, buruarekin baiezko keinua eginez, baina azkenean Jaxintok esandakoa egiten zuen, lagun-mina izateaz gain beragan konfiantza handia baitzuen. Apustua behar bezala prestatzea, ez zeukan beste gauzarik buruan, eta andreak bakarrik utzi zuenetik inongo loturarik gabe sentitzen zen, gogozko zituen itsasoak zeharkatzen zituen kapitain pilotu.

Bakoitzak bere lehiakidearengan erabateko ustea zuen, baina nola edo hala saiatu zen bere aldera ahal zuen laguntza guztia erakartzen, lehia erraztuko zukeen edozer berarengana limurtzen. Don Jose sendagilea ondo zirikatu eta neurtu zuten, baina honek nahiago izan zuen inoren alde ez azaldu. Herrian iparra eta hegoa aske zebiltzan, kalean gora eta kalean behera, bakoitzak ahal zuena bere aldera eraman nahian eta elkarren aurka lehian, eta zail gertatzen zen ontzi oihala jaso eta itsas nahasian ekuru egotea. Jarrera hori ez zen arrunta, baina Don Josereren antzera lortu zuten Don Damian apezak eta herriko alkate zen Nikolasek.

Don Damianek urte asko zeramatzan Malkorben eta azkar atzematen zuen herrian gertatzen zen edozein aldaketa, elizan denbora asko emateaz gain tabernarako bidea egunean pare bat aldiz egiten baitzuen. Hasieran harritu egin zen, baina azkar asko uztartu zituen bi gertakariak: zenbat eta egun gutxiago falta apustu egunerako, orduan eta jende gehiago hurbiltzen zen elizara, mezatara zein bere kasa errezatzerara. Kapera txikian inoiz baino kandela txiki gehiago pizten ziren, mesederen bat erregutzeko eta argi ikusi ahal izan zuen zein erroturik zegoen dema herritarrengan. Are gehiago, elizbidetik saihestu zitzaizkion ardi galdu batzuk ere hurbildu zitzaizkion aldareko belardietara. Medikuaren antzera bi muturren erdian jartzen saiatu zen Don Damian eta igandeko mezatan, hitzen tonu apala nagusi, argi utzi zuen bere jarrera, gizakion kontuak ezin dituela Jainkoak garbitu eta garaileak bere indarrei esker irabaziko zuela alegia; Jainkoa, apeza bera bezala, lehiatik kanpo geratuko zela.

Apustu eguna iritsi bitartean Txatua Endata herrira joana zen, ahaide batzuen etxera, han lasaiago prestatuko zen aitzakiaz. Bere lagunak Felixen tabernan elkartu eta bazkalostean Bixente arranduna noiz etorriko zain egoten ziren, kotxetzarra hartu eta egunero egiten baitzuen Endatara joan-etorria, arrain bila, eta zer berri zegoen kontatzen zien. Han jarraitzen zuten kezka larririk gabe arratsalde partean, kartetan jokatzeko baxoerdiak hartzeko ordua iritsi arte. Tabernara sartu eta beti leku berean elkartzen ziren, ezkerreko txokoan, baina azkenaldian ez zuten lasaitasun handirik aurkitzen; Felixek telebista erosi berria hantxe goian jarri zuen eta ez ziren ohitzen txapel gainean beste ahots batzuk entzutera.

—Felix! Itzali ezak traste zahar hau, apenas entzuten diagu geure burua eta!

Azkenerako, ordea, ikasi zuten nondik kentzen zitzaion ahotsa eta soinurik gabe, imajina mutuekin egon ohi zen telebista. Karta-jokoekin tartekatuz etengabeko eztabaidak izaten zituzten, kea irteten zen askotan mahaitik eta ez soilik erretzen zituzten puruengatik, sesioan sortzen ziren txinpartengatik baizik. Azkenaldian batez ere Txatuaren eta Keperen entrenamenduei buruz hitz egiten zuten. Horretan orduak ematen zituzten, egunero gurpil berari jira eta buelta, bira bakoitzak euren indarra eta besteen ahulezia argiago ikusteko balioko balu bezala.

—Hobe zenukete noizean behin telebista ere ikustea. Hor zegok etorkizuna, hor! — esan zien Felixek, hainbeste diskusio antzu ikustez kokoteraino, behatzarekin telebista erakutsiz—. Atzo gizakiak ilargira iritsi hituan eta egun guztian imajinak ematen ari dituk, eta zuei bost axola! Batzuk koheteetan ilargira iritsi eta denok daukagu nola izan zen ikusteko aukera; zuek, ordea, txalupa eta arrauna besterik ez duzue buruan eta benga, kaka zaharrari bueltaka!

Ez zen berehala etorri, ez, abuztuko lehen igandea. Bezperako arratsalde sargoriak galerna ekarri zuen mendebaldetik gauerako eta jendea beldur zen hurrengo eguna nola esnatuko zen. Inor baino kezkatuago ordea apustulariak, eguraldiak izan zezakeen eragina ezin baitzuten neurtu. Larunbateko orduak neurria galdu eta etengabe luzatzen zitzaizkien, bero sapak inguruko ordulari guztiak nagitu egin balitu bezala. Nahi baino denbora gehiago egon ziren biak ernai gauean, begiak bildu ezinik.

Kepek denboraleak ekarritako euria sumatzen zuen kolean, harlauzen kontra nola emeki jotzen zuen danbolina. Ohetik zutitu eta leihoa zabaldu ostean kanpora begira geratu zen denbora luzez, ukondoak leihoko eskudelean jarri eta aurrerantz makurtuta, harik eta buruan zituen kezkek melamela egin zitzaizkion arte eta ahozabalka hasi. Orduari kirika egin eta hiruak jotzear zeudela ikusi zuen oheburuko erlojuan. Leihoa ahalik eta isilen itxi eta oherako bidea hartu zuen. Loak berehala hartu zuen.

Txatua hamarretarako ohera joana zen, baina alferrik. Hasieran lokumatu zen, baina esnatu eta hurrengo eguneko ametsak uxatu zituen eta bere buruaz jabetu zen. Ohean bueltaka ibili zen jira-biraka, postura onena aurkitu nahian denbora luze eman zuen, baina azkenean zutitu eta balkoiko leihotik kalera begiratu zuen. Lurra bustirik zegoen, baina zero beltzean izarrak ikustea iruditu zitzaion; edo nahi izan zuen. Agian eguraldi ona ekarriko zuen goizak. Eskuturreko ordularian bostak. Kepe etorri zitzaion gogora; lotan egongo al zen? la sartu zuen giltza pentsamendu horren sarrailan, baina zentzuak esan zion hobe zela gauzak bere horretan uztea, eta oheratu egin zen. Begiak itxi bezain pronto nekeak eta loak bereganatu zuten.

Hurrengo egunak lainotuta argitu bazuen ere eguerdirako ostarteak zabaldu eta arratsalderako zeruak bere urdinik garbiena jantzi zuen, botatako euriek garbitu izan balute bezala. Eguraldiak bidea argitu eta jai eguna izanik inguruetakoko herrietatik ere jendea erruz hurbildu zen Malkorbera. Eguerdiko trenetik jende saldo handia jaitsi zen; denetik ikus zitezkeen, baina senar-emazte asko umeak hartu eta egun-pasa egiteko asmoz gerturatu ziren, motxila edo poltsetan bazkaria zutela. Gizon koadrilak ere soma zitezkeen, batez ere eguerdian, txikiteoan, eta guzti horrek aparteko bizitasuna ematen

zion berez hain ilauna izaten zen Malkorbeko igande bazkalaurreari. Jendea olatuan etorriko zelakoan Felixek ere ez zeukan esperantza txarrik, eta egun horretarako bazkari berezia iragartzen zuen ohar bat jarria zeukan astebate lehenagotik. Baina are deigarriagoak ziren okasiorako propio jarri zituen arbelak, non klarionez eta hizki handiz jendeak egin nahi zituen apustuak jartzen zituen. Denetarik zegoen, eta ia denak onartuak; argi ez bazen ere dirua Txatuaren alde agertzen zen: hogeitasegundo baietz, minutu bat ezetz, irabazten zuenak ezetz hogeita hamar minutu baino lehen sartu.

Bostetan zen hastekoa eta lauetarako ibai egian jendea pilatzen hasi zen han-hemenka, ibilbide guztian eta bi albotan, baina batez ere Sagaseta baserriaren inguruetan, helmuga zegoen lekuan. Uretatik bertatik baino hobeto zaila izango zela inondik ikustea eta txalupazale askok ibaian gora egin eta fondoa eman zioten ontziari, gune batzuetan pasabidea asko estutuz.

Bostak hamar gutxirako dena prest zegoen irteera puntuan, Zubi Handi inguruan. Aurrez berotzen ibiliak ziren uretan, baina atzera txalupetatik irten eta arraunlariak oraindik lehorrean zeuden, untziratu eta lehia hasteko irritan. Nerbioek aise hartu zuten Kepe eta gihar guztiak gogor-gogor eginda sentitzen zituen; bi astetan hamaika aldiz errepikatutako azken aholkuak ematearekin batera Jaxintok masajeak eman zizkion zurruntasunak askatu eta pixka bat lasaitzeko. Txatuak berriz itxuraz patxadatsu zirudien eta gerturatzen zitzaion edonori ematen zion hitza, zetorrenari garrantzia kendu nahi balio bezala. Felix tabernaria ere han zebilen, bazterrak nahasten, inor ere ez zebilela kalean eta tabernako ateak itxita alde egin baitzuen.

Nikolas alkatea jarri zuten epaile eta batela batean bien atzetik joango zen estropada guztian, esku-megafono baten bidez zuzendu beharrekoa ohartaraziz. Ordulariari begiratzen zion behin eta berriz, puntu-puntuan hasi nahi baitzuen, eta bost minutu falta zirenerako apustulariak ontzietara sartzeko agindua eman zuen.

Txatuarenak Batasuna izena zuen; Keperenak Inaxi. Eseri, arraun-estroboak toleteetan sartu eta gora-behera mugitu zituzten arraunak behar bezala ipini arte. Ipurdia ezin eroso jarri eserlekuko egur gainean eta aurreratzen mugitzen zuten gorputza, posturarik egokiena aurkitu nahian. Bateletan inguruko guztia aztertu zuten; beharrezkoa zen dena bere lekuan eta ondo egotea. Batzuek nahi baino beranduago, baina azkenean jaso zuen Nikolasek bandera gora, biek eta inguruko guztiek ikusteko moduan; konformitatea eskatu ondoren kolpe latz batez brastakoan jaitsi zuen, horrela lehen arraunketan indarra eman nahi izan balie bezala. Gogor ekin zioten, biek parez pare; jendea oihuka eta txaloka hasi zen. Sagaseta aldean jakin zezaten, zubi gainetik etxaferoak bota zituzten.

Zer zetorren ikusteko burua apenas jiratu gabe, lehen bihurtunera iritsi ziren. Aurrea hartzeak bazuen garrantzia, atzetik zetorrena zaindu ahal izateko eta beti biderik motzena aurrea hartzeko. Bi ontziak ikaragarri hurbildu ziren, ia arraun palak elkar jotzeraino. Arraunak gogoz eta azpiraino ondo murgildu, gogor astindu eta pixkanaka Txatuak aurrea hartu zuen, baina Kepek orpoz orpo jarraitzen zion era lasaiagoan, palada luzeak emanez.

Hango animo oihuak! Bazterretako jendea ez zegoen isilik, norberak berea bultzatu eta akuilatu nahi zuen, txalo edota garrasien bidez, eta ia ez zen entzuten ur izkinatik arraunketa soinurik. Soilik palada bakoitzak atzerantz

botatzen uzten zuen zurrunbiloa ikusten zen, ibaiko barealdian idatzi bezain pronto ezerezen ziren borobilak eginez.

Bide erdian Txatua arraunketa erritmoa motelduz joan zen. Gorri-gorri eginda, inguruko airea gutxi zuen eta arnasa falta zitzaion biriketean, lehertu beharrean zihoan buelta eman ezinik. Kepek berdin jarraitzen zuen, hasierako erritmoari eutsiz eta noizean behin burua jiratu eta aurkaria non zebilen zaintzen zuen, distantziak neurtu nahi balitu bezala. Konturatu zen Txatua ez zebilela fin eta ez zen horregatik asaldatu, bereari eutsi zion. Alde batera okertu, parean jarri eta apurka-apurka aurreratu egin zuen, honen eta bere zaleen etsimendurako, askok irabazitzat jotzen baitzuten dema. Jendetzaren orroek gora egin zuten. Kepe aurretik eta Txatua hogeita bost bat metrora. Sagaseta bistan zuten eta ibai errebueta erdian jarri zuten helmuga pankarta ere bai.

Barnean zeukaten dena eman beharra zegoen. Helmuga gerturatzu zihoan neurrian ibaia estutu egiten zen, eta alde banatako jendearen oihuek zubi bat egin zieten bi arraunlariei. Jende asko txaloka hasi zen; beste askori damutu egin zitzaion Txatuaren alde trabesa egina. Bazirudien Txatuak ere galdutzat ematen zuela proba. Nekearen nekez gorputza albo batera gehiegi okertzen zuen arraunaldi bakoitzean eta etsipena nagusitu zen bere jarraitzaileen artean.

Burua jiratu eta helmuga bertan ikusi zuenean Keperen neke aurpegiaren gainean irribarrea marraztu zen. Izerdia irristatzen zitzaion bekokian beheara, blai eginda zegoen eta amorratzen zegoen noiz iritsiko. Hainbeste denbora arraunean emanagatik ere elegante sartzen zuen pala uretan eta luze eman gerri kolpea, atzeraino, hasi berriak balira bezala. Txaluparen gainean paretako erloju baten pendulua zirudien, ziurtasun eta zehaztasunez behin eta berriz mugimendu bera eginez, eta denbora (estropadarekin batera) bere alde zihoan.

Ia ez zen ezer izan, itsumustuko mugimendu bat: behar bezalako sakontasunez sartu ez eta atzerantz egitean arraunak ez zuen ur askorik aurkitu. Atzerantz erori zen, ia bizkarrarekin egurra ukitzeraino. Azkar agondu eta berriro arraunean jarraitu zuen, ezer gertatu ez balitz bezala. Ehun bat metro falta zitzaizkion lehena zetorren Keperi eta hogeita hamar bat gehiago Txatuari. Pixkanaka, Keperen batelak ibai-erdia utzi eta bihurgunea hartzean gehiegi hurbildu zen ertzerara, gero eta gehiago gainera.

—Bazterra joko dekela! aurrera begira ezak, begira ezak!— Oihu egiten zioten.

Batzuek begiak igurtzi eta ezin zuten sinetsi, ez baitzen normala gertatzen ari zena. Okerka-okerkak, Kepek amorru bizian jarraitu zuen arraunketan harik eta danbateko lehor batez bazterra jo zuen arte; batela gelditu eta gero ere gogor eragiten zien arraunei eta brankak behin eta berriz ibaiertza jotzen zuen, setatsu. Jendea txistuka hasi zen, garrasika, bakoitza bereagatik poztu edo haserre bizian. Arraunak utzi, makurtu eta aurrez eroritako betaurrekoak jaso zituen ontziaren zortetik, beranduegi, juxtu-juxtuan Txatua bere albotik nola pasatzen zen ikusteko, izan zuen zortea ezin sinetsirik. Helmuga zeharkatu zuenean indarrak gabe geratu eta batelean bertan zerraldo erori zen atzerantz.

Kepe zutitu egin zen ontzi gainean, baina belaunak dardarka eta indarrak gabe zituen; berriro tostan eseri zen. Jaxinto hurbildu eta toalla bat luzatu zion. Begira jarri zitzaion alboan, baina ez zuen deus esan, ezin zuen-eta gizona hala

negar malkotan ikusita. Toallaz aurpegiko izerdi-malkoak kendu eta ibaira so egin zuen; Keperen begirada ibaiko uretan murgildu eta ito egin zen.

Txatua bateletik atera eta besagainean igo zuten zaletu batzuek. Bera ere gustura zebilen, irribarretsu, nahiz eta hauspoak zailtasunak zituen arnasari buelta emateko. Piza zerion ahotik, baina eskuoihalarekin kentzen zuen. Besoak jasotzen zituen gorantz, ukabilak itxirik. Baina supituki toalla eskuetatik erori egin zitzaion; eta goian eusten zutenei Txatua bera ere erori egin zitzaion, indarrrik gabe, zaku baten gisan amildu zen beherantz eta lurra jo zuen danba. Bere aurpegi zurbilak ez zuen ezer onik iragartzen. Don Josek ezin izan zuen ezer egin.